Nere aurpegia

Inguruneko jendea nire aurpegia gardena dela esaten du. Inguruneko jendea bakarrik aurpegira begiratzearekin sentimenduak erraz antzematen zaizkidala esaten du. Inguruneko jendea, nik triste nagoenean erraz nabaritzen dela esaten du, eta gaixorik nagoen ala ez jakitea oso erraza dela dio. Beste batzuk, neure aurpegia "komikoa" dela diote, agian nire ilearen kizkur txiki eta biribil, nire belarri handi edo nire keinu espresiboengandik, ez dakit. Jendea maiz izendatzen du nire ile nahasi eta orraztu gabea, edo nire betile luzeak, baina nire aurpegitik gehien gustatzen zaidana bere forma da. Batzuek, aitaren antza dudala esaten dute, beste batzuek, nire amonaren antza dudala diote, baina nire uste ETren ondorengo bat izan beharko naiz, nire lepo luze eta aurpegi obalatuarengatik. Irribarre goxoa daukadala esan zidaten behin, baina horrela izango da, irribarrea bakarrik ateratzen denean, zeren eta, ispiluaren aurrean edo argazki batean ateratzean, irribarrea ateratzen laguntzen badut, irribarre faltsu bat ateratzen zait. Nire sudurra eta ahoa arruntenetik arruntenak dira, eta ez daukate ezer ez berezirik. Aldiz, nire belarriak zerbait berezia badaukate; handiak dira, eta nire aitak esaten duen bezala: "*Que es el viento? Las orejas de Tasio en movimiento*".

Eta nire itxurarekin gustura nagoen galdetzen baduzu, ispiluan begiratu eta lehenengo iritzian irudi motz eta itsusi bat ikusten dut ispiluan islatuta, baina, pixka bat pentsatu ondoren, aurpegia ezertarako balio ez duela konturatzen naiz.

Barrutik ere izan behar gara politak.

Tasio